



[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

Aldi baterako kontratazio-zerrenda sortzeko deialdia

***Lanpostua: Basozaintzako ingeniari teknikoa***

***1. ariketa***

***TEST-GALDERAK***

- ***40 galdera***
- ***4 erantzun aukeran***
- ***Denbora, gehienez: 60 min.***

Deialdia: 2016/07/12

Eredua:

**D**

Ez ireki esan arte.

1. Gauzatzeko proiektu baten aurrekontuan, zenbatekoa da kontratistarentzako industria-irabaziaren portzentajea?
  - 1.a. % 6
  - 1.b. % 13
  - 1.c. % 21
  - 1.d. Administrazio lizitatzailleak ezartzen duena.
  
2. Zein da hurrenkera kronologiko zuzena proiektu baten kudeaketan?
  - 2.a. Gauzatze proiektua, lizitazioa, likidazioa, obra zuzendaritza.
  - 2.b. Lizitazioa, gauzatze proiektua, obra zuzendaritza, likidazioa.
  - 2.c. Gauzatze proiektua, lizitazioa, obra zuzendaritza, likidazioa.
  - 2.d. Gauzatze proiektua, likidazioa, lizitazioa, obra zuzendaritza.
  
3. Zein da obra-proiektu baten gutxieneko edukia?
  - 3.a. Memoria, planoak eta aurrekontua.
  - 3.b. Obren deskribapena eta unitateko prezioak.
  - 3.c. Ez dago gutxieneko edukirik.
  - 3.d. Memoria, planoak, baldintza-agiria, aurrekontua, osasun eta segurtasun azterlana, eta legezko arauak aurreikusitako beste edozein agiri.
  
4. Zer da obra unitatea?
  - 4.a. Obra baten zatietako bakoitza.
  - 4.b. Proiektuko baldintza-orriek zehazten dituzten obra-eragiketak.
  - 4.c. Lanaren zati bat, behin bakarrik gauzatzen dena.
  - 4.d. Lanaren zati bat, bereiz neurtu eta balioesten dena.
  
5. Nahitaezkoa da proiektuen oniritzia?
  - 5.a. Bai, administrazio-zuzenbidearen mendeko kontrol-ekintza da.
  - 5.b. Bai, elkargo profesionalek egiten dute.
  - 5.c. Ez, borondatezkoa da.
  - 5.d. Ez, salbu eta administrazio publikoak eskatzen badu.
  
6. Zein da Arabako baso-masen azalera gutxi gorabehera ?
  - 6.a. 300.000 ha hostozabal eta 200.000 ha konifero.
  - 6.b. 100.000 ha hostozabal eta 40.000 ha konifero.
  - 6.c. 20.000 ha hostozabal eta 40.000 ha konifero.
  - 6.d. 4.000 ha hostozabal eta 4.000 ha konifero.
  
7. Arabako baso-masen azaleraren zein portzentaje da jabetza publikokoa, gutxi gorabehera?
  - 7.a. % 75
  - 7.b. % 50
  - 7.c. % 25
  - 7.d. % 5
  
8. Arabako Lautadako baso-multzoetan, zein hiru espeziek hartzen dute azalera handiena?
  - 8.a. *Fagus sylvatica*, *Quercus faginea*, *Quercus ilex*
  - 8.b. *Quercus faginea*, *Quercus ilex*, *Pinus sylvestris*
  - 8.c. *Quercus ilex*, *Pinus sylvestris*, *Pinus radiata*
  - 8.d. *Fagus sylvatica*, *Pinus sylvestris*, *Pinus radiata*

9. Arabako erabilera eta jabari publikoko mendietan motordun ibilgailuen zirkulazioa arautzen duen 10/2010 Foru Dekretuaren arabera, zein terminori dagokio definizio hau?: "oinez ibiltzeko bideak; gehienetan tradiziozko ibilbideak dira, usadiozko helburuetarako erabili direnak".
- 9.a. Basoko bide nagusia.
  - 9.b. Bigarren mailako basoko bidea.
  - 9.c. Bide berdea.
  - 9.d. Basoko bidezidorra.
10. Definizio hauetatik, zein ez dator bat ALHko Mendiei buruzko Foru Arauan ematen den mendiaren definizioarekin?
- 10.a. Zuhaitzak, zuhaixkak, sastrakak edo belarkarak dituen landa eremua, bai mendikoa, bai ibaiertzekoa.
  - 10.b. Baso bideak.
  - 10.c. Arbolazaintza lurrak.
  - 10.d. Ohiko partzuergoei dagokien landa eremua.
11. Espainiako azalera zein sistema erabili da gehien baso kudeaketa iraunkorra ziurtatzeko?
- 11.a. FSC
  - 11.b. PEFC
  - 11.c. GFS
  - 11.d. PFC
12. Zein da azalera basometrikoaren unitatea?
- 12.a.  $m^2$
  - 12.b.  $m^2/ha$
  - 12.c.  $m^2/m^3$
  - 12.d.  $m^2/m^3$  (azalik gabe)
13. Zer erabiliko zenuke zuhaitzen diametroak eta altuerak neurtzeko baso-inbentarioko lursail batean?
- 13.a. Neurtzeko zinta eta pertika bat.
  - 13.b. Ortoargazki georreferentziatuak.
  - 13.c. Inklinometroa.
  - 13.d. Forzipula eta Bitterlich-en errelaskopia.
14. Zer esan nahi du EPI akronimoak gaztelaniaz?
- 14.a. Suteen kontra babesreko ekipoa.
  - 14.b. Norbera babesteko ekipoa.
  - 14.c. Espezie arriskutsu inbaditzailea.
  - 14.d. Nazioartean babestutako espeziea.
15. Zertarako erabiltzen da LIDAR teknologia?
- 15.a. Laser igorle batetik objektu batera dagoen distantzia zehazteko.
  - 15.b. Izurriteak airetik detektatzeko.
  - 15.c. Baso-masa baten barruan unadak bereizteko.
  - 15.d. Ortoargazki batean baso-masa baten espezieak bereizteko.

16. Zein eremuri aplikatzen zaizkio NBAPak? (gaztelaniaz PORN)
- 16.a. Onura publikoko mendiei
  - 16.b. ZEC edo babes bereziko eremuei.
  - 16.c. Natur parkeei.
  - 16.d. Baso azalera orori.
17. Espezie hauetako zein jotzen da hazkunde azkarrekotzat?
- 17.a. *Populus nigra*
  - 17.b. *Fagus sylvatica*
  - 17.c. *Quercus robur*
  - 17.d. *Sorbus aria*
18. Zein da onura publikoko mendiaren definizioa?
- 18.a. Publikoarentzat oro har onuragarria den mendia.
  - 18.b. Administrazio publikoarentzat onuragarria den mendia.
  - 18.c. Jabetza publikoko mendia.
  - 18.d. Haren interes orokorra dela eta EPMen katalogoan sartutako mendia.
19. Egur-aprobetxamenduari dagokionez zer dago debekatuta?
- 19.a. Salmenta.
  - 19.b. Trukea.
  - 19.c. Lagapena.
  - 19.d. Aurreko guztiak.
20. Zer da Natura 2000 Sarea?
- 20.a. Espazio babestuen munduko sare bat.
  - 20.b. Biodibertsitatea kontserbatzeko eremuen munduko sare bat.
  - 20.c. Biodibertsitatea kontserbatzeko eremuen Europako sare bat.
  - 20.d. Eremu naturalen Europako sare bat.
21. Zer babesten du Habitategi buruzko Zuzentarauak?
- 21.a. Desagertzeko arriskuan dauden habitatak.
  - 21.b. Ingurumena, habitat naturalak eta basa flora eta fauna barne.
  - 21.c. Habitat arraro edo errelitktikoak.
  - 21.d. Europako basa habitat guztiak.
22. Espezie hauetatik, zein jotzen da arrarotzat Mehatxatutako Espezieen EAEko Katalogoan?
- 22.a. *Amelanchier ovalis*
  - 22.b. *Quercus suber*
  - 22.c. *Pistacia lentiscus*
  - 22.d. *Arctostaphylos uva-ursi*
23. Sektoreko indarreko araudiaren arabera, nori eskatu behar zaio baimena jabari publiko hidraulikoaren barruan ibai ertzeko zuhaitz bat ebaki nahi bada?
- 23.a. Lurraren jabeari.
  - 23.b. Mendi Zerbitzuari.
  - 23.c. URA-Uraren Euskal Agentziari.
  - 23.d. Mendi Zerbitzuari eta URA-Uraren Euskal Agentziari.

24. Sektoreko indarreko araudiaren arabera, bada zuhaitzak landatzerik errepidearen ondoan?
- 24.a. Bakarrik espezie autoktonoak badira.
  - 24.b. Bakarrik jabari publikotik kanpo bada.
  - 24.c. Bakarrik errepidea egiten ari diren bitartean.
  - 24.d. Inola ere ez.
25. Zein kategoriatan sartzen dira Gasteizko Mendiak?
- 25.a. Paisaia-interesa duen lekua.
  - 25.b. Paisaia gailena.
  - 25.c. Paisaia babestua.
  - 25.d. Aurrekoetako bat ere ez.
26. Arabako ibilbide berdeei buruzko Foru Arauaren arabera, ibilbide berdeen artean zein tipologia bereizten da?
- 26.a. Bide Berdea eta Bide Urdina.
  - 26.b. Bide Berdea eta Zidor Berdea.
  - 26.c. Bide Berdea, Ibili Berdea eta Zidor Berdea.
  - 26.d. Bide Berdea eta Landa Bidea.
27. Euskal Autonomia Erkidegoko Korridore Ekologikoen Sareak leku hauek barne hartzen ditu:
- 27.a. Nukleoak, lotura eremuak eta moteltze eremuak.
  - 27.b. Konektatze-interes berezia duten ibai zatiak.
  - 27.c. Lehengoratzeko eremuak.
  - 27.d. Aurreko guztiak.
28. Zein datum hartu da gaur egun European erreferentziazko sistema estandar ofizialean?
- 28.a. ED50
  - 28.b. WGS84
  - 28.c. ETRS89
  - 28.d. ITRF93
29. Zenbat fitxategi behar du gutxienez "shapefile" artxibo batek?
- 29.a. Bat, .shp formatuan.
  - 29.b. Bi, .shp eta .dbf formatuetan.
  - 29.c. Hiru, .shp, .shx eta .dbf formatuetan.
  - 29.d. Lau, .shp, .shx, .dbf eta .prj formatuetan.
30. Zer eskaintzen du WMS zerbitzariak?
- 30.a. Mapak irudi formatuan ikusaraztea web bidez.
  - 30.b. Bektore datuak deskargatzea web bidez.
  - 30.c. Datu geospazialak igotzea web bidez.
  - 30.d. Doako geografi informaziorako sistema instalatzea.
31. Zein da bektore epidemiologikoa zumarraren grafiosian?
- 31.a. Intsektu eskolitido bat.
  - 31.b. Larba bat.
  - 31.c. *Ophiostoma* generoko onddo bat.
  - 31.d. *Ewinia* generoko bakterio bat.

32. Zer bermatzen du pasaporte fitosanitarioak?
- 32.a. Landareak atzerrian saldu daitezkeela.
  - 32.b. Landareek ez dutela kontrolik igaro behar mugan.
  - 32.c. Landareek ez dutela berrogeialdiko izurrik.
  - 32.d. Jada ez da pasaporte fitosanitarioa erabiltzen.
33. Zer da kontrasua?
- 33.a. Hesi natural edo artifizial bat, sua bereizi, geldiarazi eta zabaltzea eragozteko.
  - 33.b. Eusteko lerro bat, handik lan egin ahal izateko.
  - 33.c. Bigarren mailako sute bat, lerro lagungarri batetik sortua, inguru horretan dagoen erregaia desagerrarazteko.
  - 33.d. Haizea kontra duen sute bat.
34. Nork landu behar du Laneko Segurtasun eta Osasun Plana?
- 34.a. Sustatzaileak.
  - 34.b. Kontratatistak.
  - 34.c. Administrazio publikoak.
  - 34.d. Osasun Publikoaren Zerbitzuak.
35. Zein zirkunstantzian landu beharra dago segurtasun eta osasun azterlana?
- 35.a. Proiektuaren barruko kontrata bidezko gauzatze-aurrekontua 18.000 eurokoa edo hortik gorakoa denean.
  - 35.b. Kontraturako aurreikusitako iraupena 30 lanegunekoa denean, eta uneren batean aldi berean 20 langiletik gora enplegatuta daudenean.
  - 35.c. Aurreikusitako esku lanaren bolumena –hau da, obran dauden langile guztien lan egunen batuketa– 800tik gorakoa denean.
  - 35.d. Aurrekoetako bat ere ez.
36. Obra gauzatzen den bitartean laneko segurtasun eta osasun arloko koordinatzailea denak ahalmena du obra zati bat edo obra osoa geldiarazteko,
- 36.a. baldin eta langileen segurtasuna eta osasuna arrisku larrian eta gertukoan badira.
  - 36.b. lanaldia bukatu bada.
  - 36.c. eguraldia txarra bada.
  - 36.d. Inola ere ez.
37. Adieraz ezazu zein diren lan espazioekin lotutako arriskuak baso jardueretan:
- 37.a. Faktore klimatikoek sortutako arriskuak.
  - 37.b. Lurraren baldintzek sortutako arriskuak.
  - 37.c. Langileen garraioak sortutako arriskuak.
  - 37.d. Aurreko guztiak.

38. Nola jokatu zenuke bero-kolpe baten aurrean?

38.a. Istripua izan duena leku fresko batera eramango nuke, eta jantziak lasaitu.

38.b. Istripua izan duena leku fresko batera eramango nuke, jantziak lasaituta, eta edari bero azukredunak emango nizkioke.

38.c. Istripua izan duena leku fresko batera eramango nuke, jantziak lasaituta, eta ur gazia emango nioke.

38.d. Istripua izan duena larrialdietara eramango nuke.

39. Neurri hauetako zein ez da prebentiboa ebaki arriskurako?

39.a. Erregaia betetzen ari denean ez erretzea.

39.b. Ebakien kontrako babes-prakak erabiltzea.

39.c. Motozerra mantentzeko lanak makina itzalita dagoela egitea.

39.d. Motozerra lurrean dagoela martxan jartzea.

40. Zer egin behar da istripu batean norbaitek buruan kolpea hartu badu?

40.a. Istripua izan duena itzalpean dagoen leku batera eraman.

40.b. Buruko zaurietan presioa egin, larritasuna balioesteko.

40.c. Sudurretik, ahotik edo belarrietatik odola badario, jariora geldiarazten saiatu.

40.d. Istripua izan duena konorterik gabe bada, anbulantziari deitu.